



HAL
open science

MARIA ESTIBALIZ DE SASIOLA (Deba 1550a – 1611) -Euskal poesia idazleen artean lehen anderea

Patri Urkizu

► **To cite this version:**

Patri Urkizu. MARIA ESTIBALIZ DE SASIOLA (Deba 1550a – 1611) -Euskal poesia idazleen artean lehen anderea. *Lapurdum*, 2005, X, pp.287-302. artxibo-00141339

HAL Id: artxibo-00141339

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00141339v1>

Submitted on 12 Apr 2007

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

**PATRI URKIZU
UNED**

**MARIA ESTIBALIZ DE SASIOLA
(Deba 1550a – 1611)**

EUSKAL POESIA IDAZLEEN ARTEAN LEHEN ANDEREA



Debako anderea, 1600go irudi baten arabera

*Sorthu nintzan Etxauzian,
Hazi Garatian Agerrian,
Eskolatü Baiunian,
Madamatü Ürrütian.*

Jean de Jaurgain¹ historialariak dioskunez XIX. menderdian bildu² herri kanta honetan ageri zaigun Etxauzeko anderea, 1422an Menauton Ürrütiarekin ezkondu zen Dominga Ahetzekoa, batzuetan Hauzeko bezala ere agertzen dena litzateke. Eta dirudienez Baxanabarreko jende nobleen alabak Baionan eskolatzen ohi ziren, agian, Santa Klara komentuan, non klarisak kokatu ziren XIII. mendean, eta Saint-Benoit kalean bizitzen ageri diren jada 1309. urtean³.

Lehen pertsonan kantatzen duen andereak kexu senarrak ematen dion tratu txarraz, ez zen nornahi, noski, Etxauzeko bizkundearen arreba baizik, eta bazekikeen izkiribatzen. Tamalez, ez zaigu iritsi berak idatzitako eskuzkriburik ez eta Deba aldekoak ziren Milia Lasturko edota Santxa Hortizenik, hauek moldatu eresiak Garibairen bidez iritsi baitzaizkigu.

¹ Jean de Jaurgain, “Quelques légendes poétiques du Pays de Soule”, *La Tradition du Pays Basque*, Paris, 1899, 368-383.

² Patri Urkizu (ed.), *Chahoren Kantutegia*. Susa, Zarautz, 2006.

³ Pierre Hourmet, *Histoire de Bayonne des origines à la révolution française de 1789*. Bulletin de la société de Lettres et Arts de Bayonne, Bayonne 1986, 104.

Dena den badakigu garaiko andere noble eta monja euskaldunek bazekitela idazten hala nola Isabel Lobiano Mutrikuko Santa Katalina komentutik ihes egiten lagundu zuen monja⁴, edota Urtubiako anderea XVI. mende bukaeran espioitza lanetan aritu izan zena⁵.

Areago, Lazarragaren eskuzkribuaren aurkikuntza harrigarriak beste datu benetan interesgarri baten aurrean ezartzen gaitu, hots, besterik agertzen ez den bitartean, euskal poesia idazleen artean lehen anderearen eskuzkribuen aitzinean, hots, Maria Estibaliz Sasiola debarraren hiru poemen aurrean⁶.

Nor zen andere hau?

Lope García de Salazar (1392-1476), *Bienandanzas y Fortunas* liburu ospetsuaren egileak honela deskribatzen zituen Debako ahaide nagusiak:

En la villa de Deva ay dos linages de buenos escuderos e de grandes fazendas que fueron e son de las regicas(?) del solar de Olasso el uno es linage del Prevoste de Deva que son naturales de Iziar e fueron e son prevostes de aquella Villa que esta Iziar sobre esta villa de Deva; otro linaxe ay que se llaman los de Sasiola que otrosí fueron buenos escuderos e mucho fazendados e son contrarios los unos de los otros⁷.

Estibaliz Sasiola, beraz, leinuru oneko zen eta balirudike Lazarragatarrekin, Velascotarrekin eta Garibaitarrekin harremanak izan zituela eta Felipe IIaren gortean ibili izan zela, Euskal Herriko beste familia nobleetako hainbat andere bezala.

Nolakoa zen gorrea garai haietan?

Lezon jaio eta Abate Marchenaren seme omen zen Eugenio de Ochoa (1815-1872), idazle eta erudito liberalak erruz idatzi zuen: poemak, eleberririk hala nola *Auto de fe* Felipe IIaren garaian kokatua, saioak teatroaz eta Espainako literaturaz, etabar. Hainbeste obratarik *Epistolario español*, *Colección de cartas de españoles ilustres antiguos y modernos* argitaratu liburuan, hainitzen gutunen artean (Santillanako markesa, Sanchez de Brozas, Agirre kardinala, Juan Iriarte, Leandro Fernández de Moratín, ...) bada bat Eugenio de Salazar (Madrid 1530-Valladolid 1602) delako poeta batena, urterik gabekoa baina 1567a baino leheangokotzat jotzen duena, non ondoko hitzok irakur ditzakegun:

Está la córte, allende de esto, llena de gentes extranjeras de diversas naciones; encontraréis por las calles unos que os saluden con : beso la mano de vmd.; otros os dicen: beso as maos a vosa mercé; otros: agur xaona, orduan çagoçala; otros: bon giorno, mi ricommando a la signoria vostra; otros: musieur, je me recommande à vostre bonne grace; otros: Got berliena huberlib den gudem dag; otros: gutmara gad boe. De manera que hay tanta diversidad de saludos, que parece vinieron como guranición y presidio á impedir el daño que el ejército de médicos cortesanos pretende siempre hacer en la gente. Y hay tanta

⁴ Jose Maria Satrustegi, *Euskal testu zaharrak*. RALV-Euskaltzaindia, 1987, 31-39.

⁵ José Manuel Floristán, "Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos", *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea 1993, 177-219.

⁶ Patri Urkizu (ed.), *Joan Perez de Lazarraga, Dianea & Koplak. Madrid 1567*. Erein, Donostia 2004.

⁷ Lope García de Salazar, *Bienandanzas y fortunas*, Libro 21, f-5v. Ikus Fundación Sancho el Sabio, <http://www.euskadi.net>.

*diversidad de lenguas entre ellos, como entre los que edificaban la torre de Babel*⁸.

Beraz, ohar gaitezke euskaldunek ere bazutela espainol, portugés, italiano, frantses, flamendar eta ingelesen artean bere lekutxo gortean. Eta ez da harritzekoa kontutan hartzen badugu zenbat *secretario* eta zenbat *militar* eman zituzten euskal probintziek Espainako erresumari.

XVI. mendera hurbiltzen bagara, eta gutun hori idatzi zen garai beretsutara, badakigu zehazki Madrid aldean izan zela Joan Perez de Lazarraga, euskal eleberrigile eta poeta, zeinen eskuzkribuetarik bat argitaratu ahal izan genuen duela gutxi. Bertan argitaratzen genituen ikerketa, transkripzio modernoa, hizkuntzaz eranskin zenbait, ilustrazioak eta eskuzkribuaren faksimilea, eta gainera esaten genuen bazirela hiru poema esku ezberdinez idatziak, XXXIII, XXXIV eta XXXVa bezala sailkatzen genituenak, zeinen buruan hau irakur zitekeen: *De la Señora M^a Estibaliz de Sasiola*.

Aipatzen genuen ere nola Sasiola Debako etxe noble bat zen (gaur egun etxe bizitza ezberdinez osatua), nola Lope de Sasiola batek Zumaian 1340. urtean beste bat eraiki zuen, eta nola Zumaiaiko San Pedro kaperan Sasiolarren armak ageri ziren: San Antonioren hiru gurutze eta hirusta.

Irrikitan gelditu ginen jakiteko gehiago Estibalitzen bizitzaz eta honen familiaz. Liburu hura argitaratu ondoren eta bi urte pasatu direlarik ikusita ez dela ikerketa zehatz eta dokumentatu berririk egin ona hemen aurkitu dugunaren primizia, jakinik ikerketa serio asko egin beharrezko direla oraindik artxiboetan.

Hor ageri dira Martin Ochoa de Sasiola, Gaztelako kondestablearen sekretarioa izan zena Karlos Va enperadorea errezibitu zuena 1539ko urriaren 25ean San Adriango bortuan, eta Debako San Anton kaperaren fundatzailea, zeina Aranzibiako jauna izan zen eta maiz hauzitan sartua Gipuzkoako Juntetako agiritan agertzen denez. Hor Paskual de Sasiola Mutrikuko eskribaua eta Debako alkatea 1583an. Hor Sebastian de Sasiola Debako alkate 1588an. Hor delako *Marina, dama vizcayna que servía a la torre de Sasiola*, zeina 1604eko urrilaren 4ean hil baitzen. Eta beste...

Baina, nor zen benetan Maria Estibaliz de Sasiola?

Esan behar dugu, gure ikerketa apurren ondoren, debarra zela eta 1550a aitzin jaioa. Zergatik? Ez dugulako bere jaiotze agiririk aurkitu, baina bai heriotzarena eta beste bat, non bere izena ageri den, eta Santa Maria de la Asunción, Debako elizan bataioen data mugak 1550-1607 direlako.

Hona bada aurkitu agirien faksimileak eta transkripzioak :

⁸ Eugenio de Ochoa (ed.), *Epistolario español. Colección de cartas de españoles ilustres antiguos y modernos*. Selección y notas de... Biblioteca de Autores españoles, Tomo sexagésimo segundo, Madrid 1965, 283.

Martin, Maria Martinez
 En la villa de deba a los 26 dias
 de mes de dezembre de 1565 yo el
 sobre dicho vica^o de la dha villa case en firme.
 ecclie segund la forma de santo concilio
 y los vendixe a min de amonsategui y doña
maria martz de sasiola testigos q^o a ello fueron presentes
min ochoa de sasiola y min ochoa de irarrazabal
y doña estibaliz de sasiola y otros
 muchos vezinos en fe de lo firme de mi
 nombre Juan y Marina Elbar Uzcanga

1565

Martin y Maria Martinez

En la villa de Deba a los 26 dias de mes de diziembre de 1565 yo el
 sobredicho vicario de la dicha villa case en setiembre segund la forma de santo
 concilio y los vendixe a Martin de Amonsategui y Doña Maria Martinez de
 Sasiola testigos de ello fueron presentes Martin Ochoa de Sasiola y Martin
 Ochoa de Irarrazabal y Doña Estibaliz de Sasiola y otros muchos vezinos en
 dello firme de mi nombre Elbar Uzcanga (?). Juan y Marina⁹.

En diez y seis de abril de mill seiscientos y honze murio Estivaliz de
 Sasiola . No testó porque se tenia donados sus bienes mucho tiempo
 antes¹⁰.

1611

En diez y seis de abril de mill seiscientos y honze murio Estivaliz de
 Sasiola . No testó porque se tenia donados sus bienes mucho tiempo
 antes¹⁰.

Delako Martin Ochoa de Sasiolaz zerbait esan dugu, baina nor ote zen
 Martín Ochoa de Irarrazabal?

⁹ Gipuzkoako Eliz barrutiko artxiboa. Sanra Maria de La Asunción-go eliza, f. 2v, 1824 / 001-02. Microfilm 124-02.

¹⁰ Gipuzkoako Eliz barrutiko artxiboa. Sanra Maria de La Asunción-go eliza, f. 263 r. 1824 / 002-05. Microfilm 124-03.

1600. urtekoa bezala dataturik dagoen agiri¹¹ batean ageri zaizkigu Martín eta Domingo Ochoa de Irarrazabal anaiak galeoi kapitanak bezala. Hona nola Edouard Ducéré historialari baionesak aurkezten digun Martin Frantzia eta Espainiako itsasoko gerrez diharduelarik:

Martín Ochoa de Irazabal, capitaine et armateur de la ville de Deva, ajoute que avec les vaisseaux qu'il avait armés à ses frais pendant cette guerre, il avait capturé soixante-dix navires ennemis chargés avec pavillons, étendards et artillerie... n'ayant jamais en avec lui que le capitain Dabile de Aguire, de Deba. (Archives de Bayonne, CC, 164)¹².

Beraz, eta agiri berri gehiago agertzen ez zaigun bitartean (Estibalizen testamendua, adibidez) aipatu biografiatxo egin dezakegu. Hots, 1550a baino lehenago jaio zela Deban eta 1611an hil zela, gaztetan hiru poema bederen euskaraz idatzi zituelarik.

Ikus eta azter ditzagun orain hauexek.

(Aurelia, nola ezin duen zerbitzariak internetez eskuzkribuen faksimileak bidali duten kargatik, eskatzen dizut, arren, errebistan ezar ditzazun nire ediziotik hartuta irudiok: f.50, f.50v, f.51, eta f.51v)

Hona hiru poema eskuzkribatu hauen transkripzio modernoa, hots, ez letraz letra, baizik eta gaur egungo Euskaltzaindiaren arauen arabera moldatua, Toponimoak berean utzirik, Gipuzkoa (< *Guipuscoa*) ezik.

XXXIII

f. 50^{r1} **De la Señora M^a Estibaliz de Sasiola**

Leku on bat da Escocia,
obeago da Venescia.
Ene aldeko lagun oni
elkaenkako flakezia,
nai deban orduetako
andia dakar fantasia.
Bosteun dukat kosta jakan

5

¹¹ *Catálogo de la colección de Vargas Ponce que posee el Museo Naval. (Serie Primera: Numeración Romana). Vol. 1, Madrid, Instituto Histórico de Marina, 1979, 48.*

¹² E. Ducéré, *Les corsaires sous l'ancien régime*. Bayonne, E. Hourquet, 1895, 20.

	baroe oni balentia, Enperadore jaunaganik ekarritzea lizentzia.	10
	Eleizara juen oi naiz egin oi det bekatu, <i>Ave Maria</i> asi baize ezin oi det notatu.	
	Liburuan bere jarri oi naiz begi neureok lausotu, fraidea predikatzen jarri, itzik ezin aditu.	15
	Ofrendara Dianeana ondo oi det miratu, sagara gora dianean amore lindeaz oroitu.	20
f.50 ^{r-2}	Amore lindo galant orrek // gogoan, oi ni banindu! Lagunok baietz diostade, neuronek ezin sinistu.	25
	Neuronek ezin neio baia egingo digot mandatu, arentzat jaio nintzala ta enagiala largatu.	30
	Ez bisteak kontsolat <u><u></u> ez egonak amorat <u><u></u> , ez majan asentatu, ez oean albergatu.	
	Jaun zerukoa eztagizu<la> gizona onein amor<adu>.	35
	Laztan enea, nai gara... zure atean arteti.	
	Arren ageri zaitez, zakuskedan leiotik.	40
	Egun artan nik ez ne<ban> munduan izan bea<rrik>, Esperantzeak bizi oi... erri onetzat atean.	
	Esperantzea galdu oi det Errira natorrenea<n>. //	45
f. 50 ^{v-1}	Ene laztan zuri ederra, zure laztan ni banari kontu estua emango digozu zeruetako jaunari.	50
	Munduan diran podere oro eskuan dituanari. Bazinaki gogoa, laztana biotzekoa, <z>ure minez ilgo banaiz <l>audatu jaun zerukoa, <a>more linda galant bata	55

	<e>ne amore berria, gura dakustan ordu orotan <or>tzean ur det irria, <ur> a eztakustanea.	60
	<a>Idea malenkonia <e>gun ekusi eztet eta ...oi ene bekataria. ...sigarika banendorren ...patu egun batean	65
	... laztanarekin enkontra nezan <S> an Juanen aurrean, <ber> e iru matalotekin <gorp>utza galanta joean. //	
f. 50 ^{v-2}	Zazpi urtekoz ekarri nau gaxoturik oea, zortzierrean irte neban banijoean kalean, debotaro entzutera birjinearen mezea.	70
	Madalena santea da ene abogadea, arren, emon degidala eska nakion doea, arimakoz eta gorputzekoz obe dedan bidea.	75
	Ene laztan biotzekoa, kortes, entseinadea, erri onetan bestek ezteu ak oi deben librea.	80
	Frantziako armak dakaz goian eta bean, aren ekusten etorriko naiz, Lebante Urrunerean, biok ondo izango gara munduan garan artean, paradisu erreinuan mundutik goazenean.	85
	Fin.	90

XXXIV

f. 51 ^{r-2}	Etai lelo ibai lelo, etxean orai leloa, damarika dan galantaena Belagai Butroekoa. Belagaia diotsa eta zorionean jaioa.	5
	Oreanik jagi nintzan astelen goizean, eskuetan busti eta kalera nirteanean	10

	ene laztan zuri ederra berdurakin aurrean, soinean gonaz ondo jantzita jurapa oria gainea, gerrian gerrikoa eder	15
	solea sotil oinea, bularteria trapua zuri labradurak urrea, dontzellakin fordellisak lepoan goien ainean.	20
	dontzella batek josi zeban Iruneko kalean, niri ondo kosta jakin Gipuzkoako lurrean. Orain aldiaz aita deza<dan>	25
f. 51 ^{F-1}	Gaztelako noblezia, Burgus ta Toledo, da Cordoba ta Sibillia, <Marocco erreinua>, // Barcelona ta Valencia,	30
	Napol erri noblea da, arik urreant Calabria Genoako kondaduan. Pisakin Florencia, Pullarekin Ferrara baino	35
	obeago da Venescia. Munduak klaramente an daki zurea dana Cicilia. <A>ostaenez leku ondria, Toscanarekin Lonbardia,	40
	aek guztiak hamo bere obeago ene amore onetsia. Fin.	

XXXV

f. 51 ^{F-1}	Mendi altuan erurra daidi, aran baxuan eguzki, mendiaran guztiak baino ene koitaok nagusi.
	Ikaz lazten ninduan dontzella batek, aurten nai ez ekusi, laster kanbiatu ninduan

deseo ebena gaiti.

Ez da erraza, irakurle aditua ohartuko den bezala, konprenitzea erabat hiru testuok, poesiak berez duen zailtasunari erantsi behar baitzaizkio eskuzkribua ez egotea oso-osea eta hizkuntzaren urruntasuna.

Dena den, esan dezakegu, hiru poemok amodiozkoak direla, XXXIII aren ni poetikoa emakumezkoa dela, XXXIVarena ez dago oso argi, eta XXXVa gizonezkoaren ahotan ipiniak daude bi bertsoak. Garbi dago, halere, hirurak esku berak idatzi dituela, eta kontrako arrazoirik ezean Estibaliz Sasiolak idatziak.

Nola iritsi ziren poema hauek Juan Perez de Lazarragaren poemei atxikitzen? Hona hipotesi bat. Estibalitz, lehen poeman maitemindurik ageri zaigu eta idatziko zion poematxoa, – arrakasta handirik gabe, antza denez, – Juan Ruiz de Velascori. Hau, ordea, Belagai Butroekoaz, *damarik dan galantaena*-z dago maitemindurik. Hirugarrenean, poeta kexu da aurreko urtean maite zuen neskek kasurik egiten ez diolako.

Juan Ruiz de Velascoren semea zen Juan de Velasco Lazarragaren alaba Mariarekin ezkondu zen Santillán de Larrean 1599ko urriaren 31an, eta aitagarreba hil zitzaionean honen *Genealogía*... deituari jarraiki zion eta euskarazko eskuzkribuei erantsi Estibalitz de Sasiolarenak bezala jo zituenak.

Irakur dezagun, hain zuzen, delako leinuruei buruzko idatzian dioskuna Juan Ruiz de Velascoz:

El dicho capitán Juan Ruiz de Velasco, hijo de Pedro Ruiz de Gauna y de doña Mencia de Velasco, salio de Galerreta muy muchacho a la ciudad de Valencia, con sus tíos Juan y Pedro de Velasco que vivían en aquella ciudad muy ricos y honrados, porque tuvieron en su tiempo los cargos más honrosos de aquella República. El don Juan de Velasco, que era hermano mayor, fue... y depositario de la persona del duque de Calabria despues que habiéndole conquistado el reino de Nápoles, que era suyo, le tuvo el rey Felipe II detenido en la ciudad de Valencia, encomendando su persona y servicio al dicho Juan de Velasco. Y habiendo estado con los dichos sus tíos cuatro o seis años, se salió en 1558 al reino de Sicilia, asentándose por soldado en la compañía de Adrián García Aragonés, y fué con él a la jornada de los gelbes y la ganaron por marzo del año 1560, e hicieron un fuerte y estando en él fortificando la ciudad llevo la armada del turco y tomó y rompió la armada del Rey; y el dicho Juan Ruiz de Velasco con la gente que se halló en defensa del fuerte, se quedó dentro, donde estuvieron sitiados desde 11 de mayo hasta fin de julio de dicho año q560 (donde por falta de agua murieron de 4000 hombres más de 3900), a los cuales los ganó y llevo el truco cautivos a Trípoli de berbería, donde el dicho Juan Ruiz de Velasco estuvo trece meses esclavo hasta que al fin de ellos se rescató a su costa y vino... donde sanó la herida que tenía en la perna derecha, de un arcabuzazo en el asalto de los gelbes le dieron el año 1565[...] Y el Comendador Mayor don Juan de Zuñiga, a la sazón Virrey de Nápoles, le mandó venir con dos galeras, por general de ellas, a la guerra de Portugal donde sirvió hasta su pacificación y después a las islas de la Tercera, hasta el mes de agosto de 1584, y acabado esto con cédula de S.M. de nuevo le entregaron otras dos galeras que habían venido a

*España de Nápoles con Diego de Medina, enviadas por el duque de Osuna a la dicha guerra, y haciéndole general de ellas por su cédula real le mandó que embarcase en Cádiz el tercio del maestre de campo Manuel de Vega que estaba allí y le mando llevarle a Nápoles; después fué a Barcelona en busca del príncipe Andrea Doria, a quien entonces le habían elegido por generalísimo de la mar, con el cual se fué desde Barcelona hasta Génova donde le dejó...*¹³

Badakigu, besteak beste¹⁴, Juan Ruiz de Velasco izan zela Felipe IIaren konfidantzazko gizona XVI. mende bukaeran eta honek agindutako karitatezko obren banatzaile izan zela, baina poemak lehenagoko giroa ageri digute nabarmen, hots, Mediterraneoko gerlen garaia, eta ingurune honetan behar ditugu noski, kokatu XXXIV poeman ageri zaizkigun toponimoak (*Escocia, Venescia, Gaztela, Burgus, Toledo, Cordoba, Sibillia, Marocco, Barcelona, Valencia, Napol, Calabria, Genoa, Pisa, Florencia, Pulla, Ferrara, Cicilia, Toscana, Lombardia...*)

Testuon hizkuntzari errebaso bat ematen badiogu honako xehetasunak azpimarra ditzakegu. Hasi gaitezke grafiekin, eta ikus bokalei dagokionez, idazleak sudurkarien ikurra, hots, ā : *jācita*, (jantzita, XXXIV-13), < n > gisa transkribitu duguna darabilela. Gauza ezaguna da¹⁵ gainera garaian bazirela bokal sudurkariak, errimek agertzen dituten eran: *nirteanean, aurrean, gainea, oinea, urrea, ainean, kalean, lurrean...* (XXXIV-10-24).

Kontsonanteak direla eta bereizten ditu argi <- cⁱ -> eta <- scⁱ ->, egungo <z, tz>, alegia, txistukari frikari eta afrikatu liriatekeenak, hala: *Escocia, Venescia* (XXXIII, 1-2). Halaber <-r- > grafema darabil askotan <-rr-> dardarkari hanitza adieraztekoan, hots, *erura > erurra, ecaricea > ekarritzea, ...* bezala transkribitu ditugula.

Morfologiari dagokionez Estibaliz Sasiola debatararren (D) aditz laguntzaileak, bai iragangaitzak bai eta iragankorrak badu berezitasunik Juan Perez de Lazarraga larreatarraren (L) erekiko, hala, *nax* (L) / *naiz* (D); *dot* (L) / *det* (D), ... beste askotan berdina izan arren: *da, gara, diozu, jakan, nintzala...*

Adizkera trinkoz ere aberats dira poemok: EGIN (*enagiala, eztagizula...*), EKARRI (*dakar, dakaz...*), ETORRI (*banendorren, natorrenean...*), IKUSI (*dakustan, eztaustanean, zakuskedan...*), -IO- 'esan' (*diostade, diozu...*), IRTEN (*nirteanean...*), JAKIN (*bazinaki, daki,...*), JOAN (*banijoean, goazenean, joean, natorrenean, ...*).

Izenaren bukaerak -a organikoa duten kasuetan Lazarragan bezala -ea gisa bilakatzen da: *Dianeā, entseinadea, mezea, santea, solea...*

Halaber -mente gaztelaniazko atzizkia darabil Lazarraga legez: *klaramente, ...* Baina, ageri da ere -do atzizkia: *ondo...*

Ohiko zenbaki ordinalak adierazteko erabili ohi den -garren atzizkia, ikusten dugu laburtua: *zortigarrenean > zortzierrean* (XXXIII-72), non agian bokal sudurkaria zitekeen.

Mendebaldeko -rean ablatiboa ere ageri zaigu: *Lebante urrunerean ...*

Eta garaiko eta geroagoko mendebaldeko euskaran bezala erakuslea erantsi ohi zaio izenari, guk berezita eman arren: *baroeoni, lagunok, ...*

¹³ M. Comas, *Juan Lopez de Lazarraga y el monasterio de Vidaurreta*. Eusko Ikaskuntza, Barcelona, 1936, 147-149.

¹⁴ Adibidez, Juan de Zuñigaren emaztea, Estefanía de Requesens, Felipe IIa haurraren zaindaria izan zela, eta bere ama Palamosko kontesarekin gutun ugari gurutzatzen zituela.

¹⁵ "La N, alguna vez se pronuncia escondida en las narizes, como en *oracioa, ardaoa*, y para denotar aquella N se deve sobre poner una cifra esta manera a modo de nariz" (Pedro de Madariaga, *Honra de Escribanos*, Valencia, 1565).

Joskerari buruz azpimarratuko genuke helburuzko perpausa *-(r)en-t(z)en* moldeez adierazten dela, hala: *aren ekusten etorriko naiz* (XXXIII-88).

Hiztegiari errepasotxo bat emandakoan ikusiko dugu, toponimoez at, badirela maitasun arloko ugari (*amore, amonatu, biotzekoa, galant, kortes, laztan, lindo, onetsia...*), erlijiozkoak ez dira falta (*ave maria, eleiza, fraidea, jaun zerukoa, mezea, ofrenda, sagara,...*), eta jantzi modazkoak bada zenbait (*bularteria, gerrikoa, gona, jurapa, labradura, librea, solea, dontzella batek josi zeban...*)

Bada hitz bat ere noblezia munduko Lazarragak eta Sasiolak modu ezberdinean darabiltena: *fordelisa* (S), *flordelisea* (L).

Amodiozko hiru poemok, non agertzen zaizkigun besteen artean honako espresabideak (*arentzat jaiotzala, zure minez ilgo banaiz, laztan biotzekoa...*) nunbait kokatu beharko bagenu, gaztelaniaz deitu ohi den *poesía galante vizcaina* barnean litzateke, zeinen lehen adibideak poemok lirartekeen.

Eta kontestu zabalago batean txerta nahiko bagenu, XVI. mendeko Errenazimenduko mugimendu barnean izan ziren emakume idazleen artean. Nieves Barandak¹⁶ erakusten digun bezala errepassoa emanez garaiko emakume idazle espainolei, izan ziren garai hartan Marineo Siculok *puellae doctae* deitzen zituen zenbait (Isabel de Villena, Sor Juana de la Cruz, Constanza de Castilla, Francisca de Jesús Borja, María de Santo Domingo, Beatriz Bernal, ...) baina emakume idazleak, monjak eta seglarrak ez ziren hasi benetan irakurle zabal eta errekonozimendu publiko bat bilatzen Teresa Avilakoak 1588an Fray Luis de Leonen aurkezpen eta baimenarekin bere obrak argitaratu zireno, eredu bilakatuz.

Maria Estibaliz Sasiola, beraz, orainarte ezagutzen dugunaren arabera giro pribatuan euskaraz poesia idatzi zuen lehen emakumea dugu, Gaztelako gortean antza ibilia, eta agian honen eta besteen ohoretan moldatu zituen bertsook Lazarraga gazteak:

*Oi, Gaztelako errege jauna,
erregeagaz ikasu,
zeure kortean dama ederrik
nola bapere ez dozun,
zegaiti Euskel Errian dira
eder guztiok dotadu.*

¹⁶ Nieves Baranda, "Las escritoras españolas en el siglo XVI: la ausencia de una tradición literaria propia", *Las mujeres escritoras en la historia de la Literatura Española*. Lucia Montejo & Nieves Baranda (coord.), UNED, Madrid 2002, 33-55.